


# AUZOKOEN IRADOKIZUNEN GAINEKO TXOSTENA

# INFORME DE SUGERENCIAS VECINALES

## ANTIGUO GOLF EREMUA
## ZONA ANTIGUO GOLF

Con relación a las quejas y sugerencias vecinales recogidas tanto en los buzones colocados en la zona como en la reunión que tuvo lugar, y una vez analizadas el contenido y alcance de las mismas, así como una vez aprobado el presupuesto municipal de 2009, desde el Ayuntamiento de Getxo les informamos de lo siguiente:

Bizilagunen kexei eta iradokizunei dagokionez –eremuan jarritako postontzietan eta egindako bileran jasotakoak– haien edukia eta hedadura aztertu ondoren, eta era berean, 2009ko udal aurrekontua onartu ondoren, Getxoko Udalak honakoaren berri ematen du:

### TRÁFICO, CARRETERAS, ACERAS Y APARCAMIENTO

**- Colocar OTA en el barrio.**

No está prevista la implantación del sistema de OTA en esta zona puesto que el objetivo que se busca con el mismo es el de la rotación de plazas para favorecer el acceso a las zonas comerciales y de servicios, por lo que se implanta en las zonas con gran oferta de los usos indicados, no siendo el caso.



**- Pintar pasos de cebra en la obra de Errekagane.**

La actuación ya está realizada.

**- Delimitar zona de carga y descarga en Ganeta.**

Deberá ser solicitado por los comerciantes de la zona. En este momento no hay ninguna solicitud. Si la hubiera se estudiaría.

**- Asfaltar el pavimento del solar junto a la estación del metro en Areeta.**

En breve comenzarán las obras de acondicionamiento de dicho solar, enmarcadas en el proyecto de mejora de accesibilidad de la zona centro de Romo.

**- Abrir el parking bajo el polideportivo.**

Ya está abierto. Se han adjudicado 231 plazas en régimen de alquiler y ya se encuentran en uso, con lo que se ha incidido, de forma directa, en la mejora del aparcamiento en el barrio.

### TRAFIKOA, ERREPIDEAK, ESPALOIAK ETA APARKALEKUAK

**- Auzoan TAO jartzea.**

Ez dago TAO sistema jartzea aurreikusita; izan ere, sistema horren helburua aparkalekuak txandakatzea da merkataritza eta zerbitzu-eremuetarako sarbidea hobetzea da; horregatik, aipatu erabilera eskaintza altuko eremuetan ezartzen da eta ez da kasua.

**- Errekaganeko obran zebra-bideak pintatzea.**

Jada gauzatu da.

**- Ganetan zamalanetarako eremua mugatzea.**

Eremuko merkatariek eskatu beharko dute. Une honetan ez dago eskaririk. Eskaerarik izanez gero aztertu egingo litzateke.

**- Areetako metro-estazioaren alboko orubeko zoladura asfaltatzea.**

Laster ekingo zaie aipatu orubearen egokitzapen-lanei. Lan horiek Romo erdialdeko eremuaren sarbidea hobetzeko proiektuan jasota daude.

**- Kiroldegiaren azpiko aparkalekua zabaltzea.**

Jada zabalik dago. 231 plaza esleitu dira alokairuan eta jada erabiltzen ari dira. Horrek eragin zuzena izan du auzoko aparkalekuaren hobekuntzan.

**- Habilitar más plazas en general y aparcamientos para los padres que van a buscar a sus hijos a la escuela.**

Se intenta disponer del mayor número de plazas de aparcamiento en el viario siempre contando con el cumplimiento de la ley de Accesibilidad del Gobierno Vasco y el Reglamento general de circulación.



**- Quitar alguno de los semáforos de Gobelaurre porque crean demasiado tapón.**

Leioa ha colocado un semáforo a la altura del colegio Romo por motivos de seguridad y a petición de los centros escolares de la zona. Se podría estudiar una posible onda verde llegando a un acuerdo con el Ayuntamiento vecino para la coordinación de los semáforos.

**- Ampliar aceras en Kresaltxu (zona Super).**

Está previsto en futuros ejercicios realizar esta ampliación de aceras, del mismo modo que se va a actuar ya en otras calles colindantes como Kalamua, Gobelondo, Gral. Echagüe y Ezequiel Agirre, dentro del Plan para la Revitalización Urbanística de Romo.

**- Ralentizar tráfico en López Osés.**

Con las obras que se van a ejecutar para la urbanización de la calle se realizará un paso de peatones de los denominados sobreelevados en la zona del colegio. Con las actuaciones urbanísticas en dicha calle se ralentizará el tráfico en la misma.

**- Adelantar la parada de inicio de línea Getxo-Muskiz.**

Se desconoce el lugar exacto de la propuesta. Si la propuesta es frente al parque parece que se perderían más aparcamientos y la colocación de la marquesina tendría peor encaje.

**- Adecentar y pavimentar calles en Romo (López Osés, etc.).**

Ya se están realizando las obras de reforma integral de la calle Luis López Osés. Ya se han realizado las obras en la calle Errekagane y pronto comenzarán en Kalamua, Gobelondo, Gral. Echagüe y Ezequiel Agirre.

**- Se forman balsas de agua en La Avanzada junto a las paradas de bus, delante del colegio público Romo y en Errekagane en ambos lados de la calzada.**

Desde Vialidad y Saneamiento se estudiará cada caso en particular para solucionar los problemas puntuales que se citan. A lo largo del año se van a realizar las obras.

**Adaptar los tranquilizadores del tráfico a la normativa.**

La normativa a la que se hace referencia afecta únicamente a las carreteras dependientes del Ministerio de Fomento y está pensada para este tipo de vías por lo que su aplicación en las calles municipales no sería procedente en la mayoría de los casos.

**- Posibilitar giro en La Avanzada para poder entrar por Negubide, descongestionando así Errekagane.**

Ya se barajó esa posibilidad cuando se implantó el semáforo existente junto al Puente del Peligro pero resultaba muy complicado para encajar con el tráfico general de la Avanzada.

**- Orokorrean plaza gehiago eta ikastetxera seme-alaben bila joaten diren gurasoentzako aparkaleku gehiago ezartzea**

Bide-sisteman ahalik eta aparkaleku plaza gehien izateko ahalegina egiten da, betiere, Eusko Jaurlaritzaren Irisgarritasun Legeari eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrari jarraiki.

**- Gobelaurreko semafororen bat kentzea auto-ilara gehiegi sortzen dituztelako**

Leioako Udalak Romo ikastetxe parean semaforoa ezarri du segurtasun-arrazoiengatik eta eremuko ikastetxeek hala eskatuta. Ondoko udalarekin semaforoak koordinatzeko akordioa adostuz gero, uhin berdearen sorrera azter daiteke.

**- Kresaltxuko espaloiak handitzea (Superreko eremua)**

Aurreikusita dago hurrengo ekitaldietan espaloiak zabaltzea, Romo Hiria Suspertzeko Planean jasotako inguruko kaleetan egingo den bezala: Kalamua, Gobelondo, Etxague Jenerala eta Ezequiel Agirre.

**- Lopez Oses kalean trafikoa mantsotzea**

Kalea hiritartzeko egingo diren lanekin batera, ikastetxearen eremuan oinezkoen pasabide goratua jarriko da. Aipatu kaleko hiritartze jarduerekin batera trafikoa mantsotuko da.

**- Getxo-Muskiz lineako hasierako geltokia aurreratzea.**

Ez da proposamenaren leku zehatza ezagutzen. Parkearen aurrean jartzea proposatuz gero, aparkaleku gehiago galduko lirateke eta aterpea ez litzateke ondo sartuko.

**- Romoko kaleak txukundu eta zolatzea (Lopez Oses eta abar).**

Luis Lopez Oses kalea erabat berritzeko lanak gauzatzen ari dira. Errekagane kaleko lanak amaitu dituzte eta laster hasiko dira Kalamua, Gobelondo, Etxague Jenerala eta Ezequiel Agirre kaleetako lanak.

**- Avanzadan ur baltsak sortzen dira autobus geltokien parean, Romo ikastetxe publikoaren aurrean eta Errekaganeko galtzadaren bi alboetan.**

Bidezaintza eta Saneamendutik kasu bakoitza aztertuko da aipatu arazo puntualei irtenbidea emateko. Urtean zehar gauzatuko dira lanak.

**- Trafiko-lasaigarriak araudira egokitzea.**

Erreferentzia egiten zaion araudiak Sustapen Ministerioaren mendeko errepideei soilik eragiten die eta errepide mota horretarako dago pentsatuta; horregatik, herri-errepideetan ez da aplikagarria kasu gehienetan.

**- Avanzadan biraketa ahalbidetzea Negubidetik sartu ahal izateko eta, horrela, Errekaganeko trafikoa arintzeko.**

Arrisku Zubiaren ondoko semaforoa jarri zenean aukera hori kontuan hartu zen, baina oso zaila zen Avanzadako trafiko orokorrarekin bat egitea.




**- Aceras demasiado grandes que quitan plazas de aparcamiento y dificultan giros.**

Se está llevando a cabo el Plan para la Revitalización Urbanística de Romo, para mejorar la accesibilidad del barrio y dar prioridad al peatón, ensanchando las aceras, e incorporando a Romo a un urbanismo amable y de calidad. Además del aparcamiento subterráneo de Santa Eugenia, están ya en uso las 231 plazas en régimen de alquiler que se han otorgado en el polideportivo de Gobela y se va a acondicionar durante este año el solar que está junto a la plaza de la Estación.

**- Peatonalizar el tramo que va desde el Polideportivo hasta la estación de Gobela.**

En el proyecto URA del Gobierno Vasco ya se recoge alguna solución, planteando la construcción de alguna pasarela y cubrir parcialmente el cauce del Gobela, en el tramo comprendido entre la calle Villa de Plencia y la entrada a la estación del Metro. Los trabajos podrían comenzar en junio.

## PARQUES, PASEOS, PLAZAS, JARDINES

**- Más flores y zonas verdes.**

En estos dos años se ha aumentado la cantidad de flores colocadas en el municipio y poco a poco se van incrementando estas zonas de flores y plantas vivaces. También se están colocando otras especies arbóreas de aspecto más agradable y que presentan menos molestias. A medida que se reurbanizan los parques se colocan más flores de temporada.

**- Bancos de madera más cómodos en las zonas verdes.**

En todas las zonas que se urbanizan o se realizan cambios en el mobiliario urbano los bancos que se instalan cumplen con la normativa de accesibilidad y son más cómodos y altos.

**- Reparar el parque de Gobelaurre, en el proyecto no gusta la zona "deportiva" ni la parte cubierta (botellón).**

En la exposición realizada en su momento, y que registró un número elevado de visitantes, no se registró ninguna queja al respecto por lo que se entiende que las propuestas eran aceptables para la mayoría de los vecinos y vecinas.

**- Aparkalekuak kentzen dituzten eta biraketak zailtzen dituzten espaloi handiegiak.**

Romo Hiria Suspertzeko Plana gauzatzen ari dira auzorako sarbidea hobetzeko eta oinezkoari lehentasuna emateko; horretarako, espaloiak zabaldu eta Romori hiritartze atsegin eta kalitatezkoa esleituko zaizkio. Santa Eugeniako lurrazpiko aparkalekuaz gain, jada erabileran daude Gobelako kiroldegian alokairuan esleitutako 231 plazak eta urte honetan zehar egokituko da Estazioko plazaren alboko orubea.

**- Kiroldegitik Gobelako estaziora doan bidea oinezkoentzat egitea.**

Eusko Jaurlaritzaren URA proiektuan irtenbideren bat jasota dago. Pasabidea bat egitea eta Gobela ibaiaren ibilbidea zati batean estaltzea planteatuta dago, Plentzia kalearen eta metro estazioko sarreraren arteko zatian. Litekeena da lanak ekainean hastea.

## PARKEAK, PASEALEKUAK, PLAZAK, LORATEGIAK

**- Lore eta gune berde gehiago.**

Azken bi urteetan herrian jarritako lore kopurua areagotu egin da eta pixkanaka lore eta landare bizikorren guneak ere areagotuz doaz. Horrez gain, bestelako zuhaitz-espezieak ere ezartzen ari dira, itxura atsegina ematen dutenak eta enbarazurik egiten ez dutenak. Parkeak berriro hiritartzen diren heinean, sasoiko lore gehiago jartzen dira.

**- Zurezko banku erosoagoak gune berdeetan.**

Hiritartzen diren eremu guztietan eta hiri-altzariak aldatzen diren lekuetan jartzen diren bankuek irisgarritasun-araudia betetzen dute eta erosoagoak eta altuagoak dira.

**- Gobelaurre parkea berritzea. Proiektuko "kirol" eremuari ez zaio oniritzia ematen, ezta estalitako zatiari ere (litroak edatea).**

Bere garaian egindako erakusketak bisitari ugari izan zituen eta kexarik jaso ez zenez, bizilagun gehienentzako egindako proposamenak onargarriak zirela ondorioztatu zen.

**- Más bidegorris y aparcabicis (Errekagane, López Osés).**

Se incluyen nuevos tramos de bidegorris en la urbanización de la C/Lopez Oses y en la urbanización del parque de Errekagane que ya están en ejecución y estarán finalizados para este año. El Avance del Plan Especial de Bidegorris del municipio ha estado a exposición pública.



**- Bidegorri eta bizikletak uzteko toki gehiago (Errekagane, Lopez Oses).**

Lopez Oses kalearen eta Errekagane parkearen hiritartze-lanetan bidegorri zati gehiago egitea dago aurreikusita. Lanak jada martxan daude eta urte bukaerarako amaituko dira. Udalerriko Bidegorrien Plan Bereziaren aurrerakina jendaurrean egon da.

**Errekagane, firme y bancos.**

A fecha actual se está tramitando la adjudicación de las obras definidas en el proyecto de "Urbanización del Parque Errekagane".

**- Errekagane, zorua eta bankuak.**

"Errekaganeko parkearen Hiritartze" proiektuan xedatutako lanen esleipena oraindik izapidetzen ari dira.

**- Espacios cubiertos para poder estar en invierno con los niños. Dejar de regar cuando llueve. Colocar árboles en las nuevas aceras ampliadas. Hacer más atractivo el cauce del río y su entorno.**

Está previsto realizar una cubrición de los juegos infantiles que se vayan a instalar en el parque Txabarri Zuazo (Gobelaurre) cuando éste se urbanice. Como norma general no se riega si llueve aunque en zonas de mucha especies arbóreas y en verano se necesita más aporte de agua. Por otra parte en relación al baldeo de las calles ,este se hace con una presión que no la da el agua de lluvia y se realiza para poder arrastrar y quitar residuos y manchas que, de no realizar el baldeo, no se retirarían. En las aceras que se amplían, cuando la situación de los servicios existentes lo permite, se instalan arboles. El cauce del río y su entorno en esta zona se entiende que actualmente es atractivo y natural.

**- Neguan haurrekin egon ahal izateko eremu estaliak. Euria egiten duenean gehiago ez ureztatzea. Zabaldutako espaloi berrietan zuhaitzak jartzea. Ibaiaren ibilbidea eta haren ingurua erakargarriago egitea.**

Txabarri Zuazo (Gobelaurre) parkea hiritartzen denean jartzen diren haurrentzako jolasak estaltzea aurreikusita dago. Orokorrean euria egiten duenean ez da ureztatzen, baina zuhaitz espezie ugari dauden lekuan eta udan ur gehiago behar izaten da. Bestalde, kaleak urarekin garbitzeari dagokionez, euri-urak ematen ez duen presioarekin egiten da, bestela kenduko ez liratekeen hondakinak eta mantxak arrastatu eta kentzeko. Zabaldutako espaloietan zerbitzuen egoerak hala ahalbidetzen duenean, zuhaitzak jartzen dira. Ingurune horretan ibaiaren ibilbidea eta ingurua erakargarria eta naturala da gaur egun.

**- Aparatos para ejercicios en los parques.**

Está previsto, además de los juegos infantiles, instalar aparatos en el parque de Txabarri Zuazo (Gobelaurre) cuando se urbanice. Añadir además que recientemente se ha adjudicado la instalación de aparatos de la 3ª edad en el Muelle de Las Arenas. Su instalación se llevará a cabo próximamente.

**- Ariketak egiteko aparatuak parkeetan.**

Txabarri Zuazoko (Gobelaurre) parkea hiritartzen denean, haurrentzako jolasez gain, aparatuak jartzea pentsatuta dago. Horrez gain, duela gutxi Areatzako kaian hirugarren adinekoentzako aparatuak jartzea erabaki dute. Aparatuak laster instalatuko dira.

**- Los árboles no deben talarse.**

Solamente se talan los imprescindibles y que presentan problemas, pero en estos casos son generalmente sustituidos por otros más acordes con el medio o menos problemáticos.

**- Poda de los árboles en Gobelaurre a la altura de las escuelas.**

Se está en proceso de poda y se procederá a un saneo de los mismos en los casos en los que no sea necesaria la poda.



**- Zuhaitzak ez dira moztu behar.**

Ezinbestekoak eta arazoak dituztenak baino ez dira mozten eta, kasu horietan, ingurunearekin hobeto bat egiten dutenekin edo arazo gutxiago izan ohi dutenekin ordezkatzen dira.

**- Gobelaurreko eskolen pareko zuhaitzen kimaketa.**

Kimatze-prozesuan ari dira eta kimatzea beharrezkoa ez den kasuetan saneatu egingo dira.

## POLICÍA

**- Control del aparcamiento en la zona, es un caos (dobles filas, aceras ocupadas, salidas de garajes, etc…).**

Desde la Unidad de Tráfico, mediante el vehículo O.C.R. o con presencia de agentes a pie, se intensificará la vigilancia y los agentes denunciarán a los vehículos que estén aparcados en lugares prohibidos.

## POLIZIA

**Eremuko aparkalekuaren kontrola kaosa da (ilara bikoitzak, hartutako espaloiak, garajeetako irteerak eta abar).**

Trafikoko Unitateak zaintza areagotuko du OCR ibilgailuen bidez eta oinezko agenteen bidez, eta haiek debekatutako lekuetan aparkatutako ibilgailuak salatuko dituzte.

**- Más vigilancia policial (a pie) en la zona, sobre todo, los fines de semana.**

En la medida en que el servicio lo permita, se incrementará la presencia de agentes a pie en esa zona los fines de semana.

**- Control de los parques (Gobelaurre) que están llenos de suciedad por culpa del botellón.**

Enlaza con la respuesta anterior. La misma patrulla de agentes girará rondas de vigilancia por el parque.

**- Impunidad absoluta del Gatztetxe.**

El tema del Gaztetxe depende de la Autoridad Judicial.

**- Las bicicletas y patines andan por las aceras.**

Cuando los agentes observan cualquier infracción de tráfico de personas con bicicletas, proceden a denunciarles.

**- Controlar la venta de alcohol en sitios no autorizados.**

Se ha realizado una inspección de todos los locales de esa zona y vigilancias en los mismos, incluida una tienda de golosinas, y no se ha observado en ningún caso, venta de alcohol a menores. Se seguirá incidiendo en las vigilancias con agentes de paisano.

**- Sancionar a los dueños de perros que no recogen las deposiciones de sus animales.**

Si los agentes observan a personas con perros que incumplen los preceptos de la Ordenanza sobre animales, procederán a la denuncia correspondiente.

**- Control de los grafiteros.**

Se realiza en las vigilancias preventivas de los coches-patrulla.

**- Control de ruido de motos.**

Se realizan a lo largo del año diversas campañas de controles de ruidos de ciclomotores y motocicletas, en diferentes lugares del municipio y en los casos de incumplimientos de la Ordenanza o de la Ley de Tráfico, se denuncian y se inmovilizan los ciclomotores o motocicletas.

**- Control de las "mafias" de los supermercados y semáforos.**

En los casos de mendicidad, los agentes solamente pueden actuar si es practicada con menores. En los casos en que se dedican a limpiar parabrisas o este tipo de cosas, si no hay molestias o denuncias de los automovilistas, no hay actuación posible.

**- Coches "se vende" en Gobelaurre.**

Se está actuando con la venta de automóviles en la vía pública. En la calle Gobelaurre, se han trasladado vehículos en venta al Depósito Municipal y se han tramitado bastantes expedientes sancionadores. No obstante para poder iniciar un expediente hay que comprobar que el vehículo permanece aparcado en el mismo lugar con los carteles de "se vende" por un periodo superior a una semana.

**- Aumento de robos en la zona.**

Es una apreciación, pero no contamos con datos que nos indiquen que haya habido un incremento de robos en esa zona.

**Poliziaren (oinezkoen) zaintza gehiago eremuan, batez ere, asteburuetan.**

Zerbitzuak ahalbidetzen duen heinean, eremuan oinezko agenteen kopurua areagotuko da asteburuetan.

**- Jendeak litroak edaten dituelako, zakarrez beteta dauden parkeen (Gobelaurre) kontrola.**

Aurreko erantzunarekin lotzen da. Agente talde berak zaintzatxandak egingo ditu parkean.

**- Gaztetxearen erabateko zigorgabetasuna.**

Gaztetxearen gaia Agintari Judizialaren mendekoa da.

**- Bizikletak eta patinak espaloietatik ibiltzen dira.**

Bizikleta dutenek trafikoko arau-hausteren bat egiten dutela ikusten dutenean, agenteek salatu egiten dute.

**- Alkoholaren salmenta kontrolatzea baimendu gabeko tokietan.**

Eremuko lokal guztiak ikuskatu eta zaindu dituzte, gozoki-denda barne, eta ez da adingabekoei alkohola saltzen denik ikusi. Kalez jantzitako agenteekin zaintzak egiten jarraituko dute.

**- Zakurren gorozkiak jasotzen ez dituzten animalien jabeei isuna jartzea.**

Animaliei buruzko Araudia betetzen ez duten zakurrekin norbait ikusiz gero, agenteek dagokion salaketa ipiniko dute.

**- Grafiteroen kontrola.**

Patruila-autoen prebentzioko zaintzetan kontrolatzen da.

**- Motorren hotsaren kontrola.**

Udalerriko hainbat tokitan urtean zehar hainbat kanpaina egiten dira ziklomotorren eta motozikleten hotsa kontrolatzeko. Ordenantzak edo Trafikoko Legeak betetzen ez dituzten kasuak salatu eta ziklomotorrak edo motozikletak ibilgetu egiten dira.

**- Supermerkatuetako eta semaforoetako "mafien" kontrola.**

Eskaletasun kasuetan, agenteek adingabekoekin praktikatzen denean soilik jardun dezakete. Haizetakoa garbitu edo horrelakoak egiten dituzten kasuetan, eragozpenik edo auto-gidarien salaketarik ezean ez dago jarduterik.

**- "Salgai" autoak Gobelaurren.**

Bide publikoan automobilen salmenta gauzatzen ari da. Gobelaurre kalean salgai zeuden ibilgailu ugari eraman dira Udal Gordailura eta hainbat zehapen-espediente izapidetu dira. Hala eta guztiz ere, espedientea zabaldu aurretik ibilgailuak astebete baino gehiago leku berean "salgai" txartelarekin aparkatuta daramala egiaztatu behar da.

**- Lapurreta gehiago eremuan.**

Horren ustea dago, baina ez daukagu eremuan lapurretak areagotu direla adierazten duen daturik

## PABELLONES ERREKAGANE

**- Tirar y acondicionar la zona continuando parque hasta la estación. Construir aula de cultura. Hacer piscina descubierta. Habilitar un aparcamiento para los días de partido. Construir un gaztetxe. Construir pisos de alquiler social para jóvenes del barrio.**

No está prevista la ubicación de ningún equipamiento público en dicho lugar.

## POLIDEPORTIVO GOBELA

**- Entradas al Polideportivo cubiertas.**

Es una cuestión de diseño arquitectónico. No es posible cubrirlas por los riesgos sobre el diseño de la estructura de acceso.

**- Polideportivo mal ventilado. Ruido insoportable de los ventiladores.**

Se refiere a los ventiladores del Polideportivo. Se está buscando financiación para arreglar el sistema de ventilación.

**- Cursos de natación para adultos.**

Se está estudiando la posibilidad para organizarlos, pero la demanda real no es suficiente, por lo que, ahora mismo, se concentran en Fadura ya que, además y según los monitores, cuenta con una piscina más adecuada para la enseñanza.



**- Apertura de la piscina en verano.**

Se cerrará del 15 al 30 de agosto para la revisión obligatoria de Sanidad.

**- Frontón y rocódromo gratuito.**

No se contempla por ahora. Los menores abonados de Getxo Kirolak disfrutan de las instalaciones gratuitamente haciendo la reserva 10 minutos antes de usarlas.

## VARIOS

**- Transporte público entre barrios periféricos.**

Se han hecho al menos dos estudios de implantación de autobuses en el municipio pero el déficit de explotación que resulta es bastante disuasorio. De todas formas el metro vertebra bastante bien todo el municipio.

**- Bajar los impuestos. (alcantarillado y basuras).**

Ya se ha aprobado en los presupuestos de 2009.

## ERREKAGANE PABILOIAK

**Eremua bota eta egokitzea parkea eginez estazioraino. Kultur aretoa eraikitzea. Estali gabeko igerilekua egitea. Partida dagoen egunetarako aparkalekua egitea. Gaztetxea eraikitzea. Alokairu sozialeko pisuak eraikitzea auzoko gazteentzako.**

Aipatu lekuan ez dago aurreikusita inolako ekipamendu publikorik.

## GOBELA KIROLDEGIA

**- Kiroldegirako sarrera estaliak.**

Arkitektura-diseinuaren araberakoa da. Ezin dira estali sarrerako egituraren diseinuaren gaineko arriskuak direla eta.

**- Gaizki aireztatutako kiroldegia. Haizagailuen hots jasanezina.**

Kiroldegiko haizagailuei dagokio. Aireztapen-sistema konpontzeko finantzaketa bila ari dira.

**- Helduentzako igeriketa ikastaroak.**

Ikastaroa antolatzeko aukera aztertzen ari dira, baina eskaera erreala ez da nahikoa; horregatik, Faduran elkartzen dira. Han gainera, monitoreek diotenez, igerilekua egokiagoa da irakaskuntzarako.

**- Udan igerilekua zabaltzea.**

Abuztuaren 15etik 30era Osasunaren nahitaezko ikuskapenerako itxiko da.

**- Doako frontoia eta rokodromoa.**

Oraingoz ez dago aurreikusita. Getxo Kirolak taldeko adingabeko abonatuek instalazioak doan erabil ditzakete erabili baino 10 minutu lehenago erreserbatuz gero.

## BESTELAKOAK

**- Hiri-inguruko auzoen arteko garraio publikoa.**

Udalerrian autobusak jartzeko bi azterketa egin dira gutxienez, baina esplotazio-gabeziak asmoa baztertzen du. Hala eta guztiz ere, metroak nahiko ondo egituratzen du udalerri osoa.

**- Zergak jaistea (estolderia eta zaborrak).**

2009ko aurrekontuetan jada onartu da.



**- Alumbrado navideño en zonas alejadas del centro.**

No es habitual en ningún sitio. Lo normal es en calles muy frecuentadas y con comercio, y en los lugares más visibles del municipio (entradas, triángulo, etc) .

**- Urbanización e iluminación López Osés.**

En el proyecto de urbanización de la calle, ya adjudicado, está incluido el alumbrado. Está ya en ejecución.

**- Pasarela que conecte Lope de Vega con el paseo de Errekagane.**

No está previsto en este momento.

**- Habilitar puntos de recogida de juguetes en navidad.**

En principio son las asociaciones benéficas las que se ocupan de estas acciones y en ocasiones el Ayuntamiento ha colaborado con ellas.

**- Aula de cultura nueva con ludoteca, cine, etc.**

El concurso para adjudicar la redacción del proyecto del nuevo Aula de Cultura está a punto de salir. El gran centro cívico de Getxo, con 7,4 millones de euros de presupuesto, se ubicará en el lugar donde actualmente se encuentran las antiguas escuelas de Santa Eugenia –edificio que será demolido- y se convertirá en la sede del Aula de Cultura por excelencia en el municipio. Será una infraestructura moderna y potente, puesta al servicio de la Cultura, del Arte y, sobre todo, de las necesidades del gran tejido asociativo existente en Getxo. El nuevo edificio, de 4.000 m2. aproximadamente, contará con sótano, 5 plantas y un ático. Contará con un importante salón de actos, sala de exposiciones, la Oficina de Atención Ciudadana, biblioteca de adultos e infantil, ludoteca y salas polivalentes, sala de estudio, talleres y un Kulturgune (espacio para el uso de asociaciones).



**- Gabonetako argiak zentrotik urruneko eremuetan.**

Ez da ohikoa inon. Normalena jende asko ibiltzen den eta merkataritza dagoen kaleetan eta udalerriko leku ikusgarrienetan jartzea da (sarrerak, triangelua eta abar).

**- Lopez Oses kalearen hiritartze-lanak eta argiztapena.**

Jada esleituta dagoen kalearen hiritartze proiektuan argiztapena jasota dago. Jada lanean ari dira.

**- Lope de Vega Errekagane pasealekuarekin lotuko duen pasabidea.**

Orain ez dago aurreikusita.

**- Gabonetan jostailuak jasotzeko guneak jartzea.**

Normalean erakunde ongileak arduratu ohi dira jarduera horietaz eta batzuetan udalaren lankidetza jasotzen dute.

**- Ludoteka, zinema eta abar dituen kultur areto berria.**

Kultur areto berriaren idazketa proiektua esleitzeko lehiaketa ateratzeko puntuan dago. Getxoko auzo-etxeak 7,4 milioi euroko aurrekontua du eta egun Santa Eugenia eskola zaharra dagoen lekuan kokatuko da —eraikin zaharra botako da— eta udalerriko Kultur aretoaren egoitza nagusi bilakatuko da. Azpiegitura moderno eta indartsua izango da. Kulturaren, artearen eta, batez ere, Getxoko elkarte-ehun garrantzitsuaren beharren zerbitzura jarriko da. 4.000 $m^2$ inguruko eraikin berriak sotoa, bost solairu eta ganbara izango ditu. Honako hauek izango ditu: ekitaldiaretoa, erakusketa-aretoa, udalaren auzo-bulegoa, haur eta helduentzako liburutegia, ludoteka, erabilera anitzeko aretoak, ikasteko gela, tailerrak eta Kulturgunea (elkarteen erabilerarako eremua).

**- Limpieza y mantenimiento del rio para evitar inundaciones.**

Se están realizando acciones en este sentido y ya se ha dado el visto bueno al proyecto URA en el que se plantean acciones concretas y urgentes.

**- Drenaje directo desde la iglesia hasta el Gobela.**

El proyecto de renovación del colector de Romo en Kresaltxu y Santa Eugenia para evitar láminas de agua en la zona de la Iglesia está ya acabado y con su tramitación para licitación en marcha. El drenaje directo al río no resolvería este problema ya que al ser la evacuacion de las edificios existentes mayoritariamente unitaria (y no se podrá cambiar hasta que se derriben y se hagan otros nuevos ) el drenaje directo al río solo evacuaría las escorrentías de la vía pública, que es una parte relativamente pequeña de la superficie total a evacuar.

**- Recogida subterránea de basura para evitar ruidos.**

Se está estudiando aunque cualquier actuación tardará bastante dada la complejidad y el coste económico de la iniciativa.

**- Contenedores que quitan visibilidad.**

Revisada la zona no se encuentra ningún punto en el que la visibilidad quede reducida por culpa de algún contenedor.

**- Olor muy fuerte a alcantarilla en Lertegi con Negubide.**

Con fecha 17 de diciembre de 2008 se procedió a la revisión y limpieza del colector de aguas residuales de la calle Negubide.

**- Más iluminación, las copas de los árboles quitan luz.**

La afección al alumbrado por el arbolado no es general sino que se da únicamente en una pequeña parte de los puntos de luz. Salvo el caso de algún ejemplar puntual en el parque de la esquina de Negubide con Cervantes, la mayor parte del arbolado que afecta a la iluminación está situado en fincas particulares y presenta un importante desarrollo, volando varios metros sobre la vía pública, por lo que es precisa la poda de los mismos de cara a corregir esta situación. Se procederá a notificar a los propietarios para que procedan a este respecto.

**- Coordinación de obras para no abrir la calle 20 veces.**

Es lo que se intenta, pero ocurre que suele haber bastantes obras imprevistas motivadas por roturas de servicios( agua, saneamiento, etc ) , por lo que la coordinación en estos casos resulta casi imposible.

**- Ibaiaren garbiketa eta mantentze-lanak uholdeak ekiditeko.**

Ildo horretako jarduerak gauzatzen ari dira eta ekintza zehatzak eta premiazkoak planteatzen dituen URA proiektua onartuta dago.

**- Drainatze zuzena elizatik Gobelaraino.**

Elizako eremuan ur-laminak saihesteko Kresaltxu eta Santa Eugeniako Romoko hodi biltzailearen berriztapen-proiektua amaituta dago, lizitazioa martxan jartzeko izapideekin. Zuzenean ibaira drainatzeak ez luke arazoa konponduko; izan ere, eraikinen ebakuazioa nagusiki unitarioa denez (ezingo da aldatu bota eta berriak egin arte), ibaira zuzenean drainatutakoak bide publikoko isurketak soilik ebakuatuko lituzke, eta hori ebakuatu beharreko azalera totalaren zati txiki bat baino ez da.

**- Zaborraren lurrazpiko bilketa zarata saihesteko.**

Aztertzen ari dira, baina denbora beharko da edonolako jarduerak aurrera eramateko, ekimenaren konplexutasuna eta kostu ekonomikoa dela eta.

**- Ikuspena murrizten duten edukiontziak.**

Eremua ikuskatu ondoren, ez da edukiontzien ondorioz ikuspena murrizten den punturik aurkitu.

**- Lertegik Negubiderekin bat egiten duen lekuan estolda-kiratsa.**

2008ko abenduaren 17an Negubide kaleko hondakin-uren hodi biltzailea ikuskatu eta garbitu zen.

**- Argiztapen gehiago, zuhaitz-adaburuek argia kentzen dute.**

Zuhaitzen eragina argiztapenean ez da orokorra, argi-puntuen zati txikian baino ez da ematen. Negubidek Cervantesekin izkina egiten duen parkeko kasu puntual batzuetan salbu, argiztapenari eragiten dion zuhaizti zati handiena lursail partikularretan dago eta oso garatuta daude, hau da, bide publikoaren gainetik hainbat metrora daude; horregatik, egoera horri aurre egiteko kimatzea beharrezkoa da. Jabeei jakinaraziko zaie horri dagokionez jardun dezaten.

**- Lanak koordinatzea kalea 20 bider ez ireki behar izateko.**

Lanak koordinatzen ahalegintzen da, baina ustekabeko obra ugari sortzen dira zerbitzuen hausturen ondorioz (ura, saneamendua eta abar); hori dela eta, koordinazioa kasu horietan ia ezinezkoa izan ohi da.

